



Errealitate baten eguneko pertsonala

Patxi Huarte 'Zaldieroa' marrazkilariak azken bi urteetan BERRIA egunkarian argitaratu dituen komiki-tira onenak bildu ditu 'De Rerum Natura 2' antologian.

JON ORDOÑEZ
Donostia

Bi urte pasatu dira Patxi Huarte Zaldieroa marrazkilariak (Faltzes, 1966) *De Rerum Natura* lehen liburua argitaratu zuenetik. Berrian, Tarte sailean, argitaratzen dituen tirekin osatu zuen lehen bilduma hori, eta orain, bi urte geroago, *De Rerum Natura 2* bigarrena osatu du Elkar argitaletxearen eskutik. Bi urtean 600 tira bai-

no gehiago egin ditu Zaldieroak (aurten urtarrilaren 5ean 1.000a argitaratu zuen), eta lanaren erdia aukeratu du bigarren bildumarako. «Eguneroko moduko bat da, bi urte hauetan gertatutakoa islatzen du; polita da horrelako eguneroko bat argitaratzea», azaldu zuen marrazkilariak atzo Donostian egin zuen aurkezpenean. «Bi urteko lana urte batean egingo banu urtero aterako nuke bilduma, baina ez naiz Woody Allen bezain produktiboa».

Zaldieroak hitzari ematen dio garrantzia gehien bat, eta bere marrazkiek egunero ekartzen dute zorroztasuna BERRIARA, errealitatearen gordintasunari (mikaztasuna esan zuen aurkezpenean Xabier Mendiguren Elizegi editoreak) irribarre bat emanez. Bi urte hauetan hobeto marrazten ikasi duela dio, baina ukalezina da bere pertsonaiek espresatzeko eta gizarterko zenbait gai eta eztabaida laburbildu eta argitzeko duten gaitasuna. «Gaiak esaten dit zein pertsona erabiliko dudun: Gizon jakintsua politika da, Sebastian erlijioa, Xaxa nire katua da eta Azken

«**Pertsonaia berriak sartzeko asmoa badut, baina ez naiz horrekin estutuko; etorriko dira**»

PATXI HUARTE 'ZALDIEROA'
MARRAZKILARIA

«**Olagarroak bezala, harrapatzen du irakurlea, tintarekin lana bildu, makilatu, heldu eta zas!**»

ANTTON OLARIAGA
MARRAZKILARIA

«**Marrazkilari on asko dago, baina gutxi lortzen dute imaginario kolektiboan leku bat**»

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI
EDITOREA

antxoan nire kontzientzia ekologista, asko gustatzen zait». Sormenak lagundu ahala, gehiago gehituko zaizkie aurretik ezagun egin diren horiei. «Marrazkilari on asko dade, baina gutxi lortzen dute imaginario kolektiboan leku bat egitea. Leku hori hartu dute talibanak, gizon jakintsuak...», esan zuen Mendiguren Elizegik.

'ZALDIGARROA'. Zaldieroaren lanaren miresleeta Antton Olariaga marrazkilaria da. Berak ere Berrian argitaratzen ditu Zakilixuten istorioak. «Iragarritako liburua da hau. Lehenik, herenegun telebistan Octopussy filma iragarri zutelako. Bigarrenik, aurreko astean jakinarazi zutelako olagarroek oihu egiten dutela. Eta, hirugarrenik, orain dela ehun urte Luigi Pi-

randello idazle italiarrak idatzi zuelako *Sei pertsonaia autore baten bila* liburua. Umoreari buruzko ikerketa da. Pertsonaia guztiak orain arte zain egon direla dirudi, Zaldieroak hartu dituen arte».

Berrian txuri-beltzean argitaratu dituen tirak jaso ditu Zaldieroak *De Rerum Natura 2* liburuan, baina horietako batzuk margotu egin ditu. Guztira 159 orrialde dira. Antton Olariagak hausnarketa polita egin zuen aurkezpenean liburueren azalean ageri den olagarroari buruz: «Olagarroa octo-garroa da, zortzi hanka dituen. Animalia bete ezina, hondoan zirrikituetan zain egoten dena. Azaleko olagarroak zazpi hanka garro ditu, komikietako pertsonaia heltzen dituztenak. Zortzigarrenak irakurlea harrapatzen du liburua irekitzen duenean». Zaldieroaren eta olagarroaren arteko hausnarketa Zaldigarroa izena asmatuz amaitu

Gizon jakintsua

«Pensamiento dominante-aren metafora»



Xaxa katua

«Nire katua. Nire behatzeko gaitasuna proban jartzen duena. Ez du deus egiten, eta nik zerbait kontatzeko oso begirada zorrotza izan behar dut»

La pelota basqua

«Niri tristezia ematen dit, eta marraztu dudun azken aldian triste egin dut. Ni bere ondoan triste»

Azken antxoa

«Olagarroaren maitalea»

